



KOLON ETA ONDESTEKO EBAKUNTZA AURREKO PRESTAKETA DIABETIKOENTZAKO PLEINVUE® HARTUZ TEM/TAMIS EBAKUNTZA OSPITALERATZEN ZAITUZTEN EGUNEAN BERTAN

1.- KOLONEKO PRESTAKUNTZA MEKANIKOA

Ebakuntza kirurgikoaren aurreko eguneko 16:00etan HASI BEHARKO DUZU PRESTAKETA HARTZEN.

Une horretatik aurrera EZIN izango duzu elikagai solidorik hartu ospitaleratu arte.

16:00etan: PLEINVUE®-ren 1. DOSIA: diluitu lehenengo zorroa (1. DOSIA) 500 ML UR HOTZETAN; edan disoluzio hori 45-50 minutuko tartean. Ondoren, edan 500 ml ur, 15 g azukrerekin batera edo 250 ml edari isotoniko, Aquarius limoi edo laranja motakoak (ez aukeratu light edo zero bertsioa, gutxieneko glukosa edo azukre kopurua eman nahi baitugu hipogluzemia saihesteko). Ondoren, edan gutxienez 250 mililitro ur edo LIKIDO ARGIAK (INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

20:00etan: PLEINVUE®-ren 2. DOSIA: (2. dosiaren A zorroa + 2. dosiaren B zorroa). Diluitu bi zorroak 500 ML UR HOTZETAN; edan disoluzio hori 45-50 minutuko tartean. Ondoren, edan 500 ml ur, 15 g azukrerekin batera edo 250 ML edari isotoniko, Aquarius limoi edo laranja motakoak (ez aukeratu light edo zero bertsioa, gutxieneko glukosa edo azukre kopurua eman nahi baitugu hipogluzemia saihesteko). Ondoren, edan gutxienez 250 mililitro ur edo LIKIDO ARGIAK (INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

Ospitaleratu baino 2 ordu lehenago: ezinbestekoa da **ezer ez** hartzea (ezta urik ere).

2.- CLEXANE 40 MG HARTZEA, 20:00ETAN, EBAKUNTZA KIRURGIKOAREN AURREKO EGUNEAN (BEHARREZKOA BADA)